



"IRRATI-TELEBISTA PUBLIKOAK BORROKAN": Irrati eta telebista publikoetako langile-batzordeen elkarlana, hedabide publikoen defentsan

Komunikazio-enpresa publiko guztietan antzeko arazoak daudela egiaztatu ondoren, martxan da **“RTVs Públicas en Lucha / Irrati-telebista publikoak borrokan”** plataforma. Denok mehatxu berberak bizi ditugu: informazioa alderdikieriaz kontrolatzeko, egituretan eta erredakzioetan esku hartze politikoa; programazio-parriletan pribatizazioak edota justifikatu gabeko azpikontratazioak eragiten dituen arlo publikoaren kudeaketaren ikuskera kapitalista bat; eta langileen segurtasunerako eta osasunerako eskubidea urratzen duten digitalizazio prozesuak edota berrikuntza teknologikoen inplementazioa.

Pribatizazio prozesuak oso zabaldua daude hedabide guztietan Balear Uharteetako irradi-telebista publikoan izan ezik. Han alderantzizko bidea egiten ari dira emaitza itxaropentsuekin; lehen pribatizatuta zeuden ekoizpenak eta zerbitzuak barneratzearen alde egin dute. Plantillak nahita eta pixkanaka murriztea da zuzendaritzen aitzakia nagusia azpikontratazioak justifikatzeko, eta horrek, kasu askotan, gastua handitu eta kalitatea murrizten du.

Informazioaren manipulazioa, neurri handiagoan edo txikiagoan, hedabide publiko guztien gaitz komuna dela ikusi dugu. Praxi txar horri aurre egiteko tresna formalak badaude zenbait komunikabidetan: erredakzio kontseiluak edo kontseilu profesionalak. Horiek baliagarriak dira informazioaren profesionalak babesteko eta praktika txar horiek aldentzeko, baina, hala ere, gertatzen dira.

Alde handiagoak ikusten ditugu komunikabide autonomiko bakoitzaren lurralde-antolaketan. Aldeak daude bai lurralde-ezarpenaren edo lurraldeetako presentzian apustu handiagoa edo txikiagoa egitean, baita lantokiak edo ordezkaritzak husteko eta eraisteko mailetan ere. Hori da hedabide publiko autonomikoek zaindu behar duten indargune estrategiko nagusietako bat; lurraldea egituratzeko eta hizkuntzak eta identitateak babesteko betebeharrak bete nahi badira.

Hedabide guztietan egindako digitalizazio-prozesuek zeregin eta funtzio berriak ekarri dizkiete profesionalai, eta horiek modu esponentzialean handitu dituzte plantillen arrisku psikosozialak. Hain zuzen ere, multitareak eta balio-aniztasunak eragindako estresaren eraginpean daude plantillak. Lantokia zenbat eta txikiagoa izan, egoera orduan eta larriagoa da.

Gaur egun, hedabide publiko gehienetan, hitzarmen kolektiboetan jasotzen diren lanbide-kategorien deskribapenak zaharkituta daude, eta ez datoz bat egungo errealitate funtzionalarekin, ezta etorkizuneko erronka garrantzitsuek ezartzen duten eskaerarekin ere.

Demokraziaren bermatzaile gisa komunikabide publikoek duten papera eta independentzia mehatxatzen dituen egoera latz horren aurrean, "Irrati-telebista publikoak borrokan" plataformak modu koordinatuan erantzun nahi du, lurralde guztietatik eta klaseko sindikalismotik.

Galizia, Asturias, Euskal Herria, Katalunia, Andaluzia, Madril, Kanariar Uharteak, Balear Uharteak, Extremadura eta Gaztela Mantxako komunikabide publikoetako enpresa-batzordeak, TVEko CCOO eta CGT sekzio-sindikalekin eta Murtziako CCOO sindikatuarekin batera daude aliantza horretan.

IRRATI-TELEBISTA PUBLIKOAK BORROKAN joan zen martxoan jaio zen, Santiago de Compostelan, Galiziako irradi-telebista publikoko ordezkariak antolatuta egin zen langile-batzordeen lehen topaketan. Batasun horren helburua da mehatxatuta dauden eta demokrazian funtsezkoak diren hedabide publikoak batera defendatzea.

IRRATI-TELEBISTA PUBLIKOAK BORROKAN hedabide publiko hauetako langileen ordezkariak osatzen dute:

CSAG (Galizia) zertroarteko batzordea
RTPA (Asturias) enpresa batzordea
EITB (Euskal Herria) enpresa batzordea
RTVM (Madril) enpresa batzordea
CCMA 3CAT (Catalunya) enpresa batzordea
RTVA-CSRTV (Andaluzia) zertroarteko batzordea
EPRTVIB (IB3) (Illes Balears) enpresa batzordea
À Punt (Comunitat Valenciana) enpresa batzordea
Canal Extremadura enpresa batzordea
Radio Televisión Canaria enpresa batzordea
Castilla La Mancha Media enpresa batzordea
RTVE CGT sekzio sindikala
RTVE CCOO sekzio sindikala
CCOO RTRM-ORM (Murcia) sekzio sindikala

